

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

172/2020 Foru Agindua, uztailaren 24koa, Aixear SAk sustatutako proiektuaren interes publikoa aitortzen duena, Azazeta-2 estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko, haize neurketak egiteko Azazeta udalerriri dagokion toki batean, Arraia-Maeztu udalerriko lurzoru urbanizaezinean

Aixear SA sozietateak, zeina Eólicas de Euskadi SAK (Grupo Iberdrola) eta Cadem SAK eratzen baitute –azken hori Eusko Jaurlaritzaren Energiaren Euskal Erakundearena da (EVE taldea)–, Arraia-Maeztuko Udalerri obratarako udal lizentzia eskatu dio Azazeta-2 estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko proiekturako, xedea baita haizea neurtzea Azazeta herriarena den eremu batean. Horretarako, 82,5 metro altuko neurketa dorre bat muntatu behar da, 3 poligonoko 194E lurzatian, udalerriri horretako lurzoru urbanizaezinean.

Arraia-Maeztuko Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean proiektu teknikoaren kopia bat dago, baita udal arkitektoak emandako txostena ere, eta bertan ageri da dorrea proiektatu den lurzattia lurzoru urbanizaezin gisa ageri dela sailkatuta, 4. zona gisa kalifikatuta, Mendi larreak babesteko zona. Onura publikoko mendiatarako Mendien Foru Arauan jasotako erregulazioa aplikagarria da, baita udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen 201. artikulua ere, zona bakoitzean baimendutako erabilera eta jardueri buruzkoa. Agindu horretan aurreikusi denez, “lurzoru urbanizaezinean interes publiko edo sozialeko instalazioak eta eraikinak baimendu ahalko dira, landa eremuan jarri behar badira...”

194 E lurzattia, 3. poligonoa, Onura Publikoko Mendien Katalogoan dago jasota, 296. zenbakiarekin, “Lekutxa”; udal txostenean jaso da Nekazaritza Sailean izapidetu dela Mendien Foru Arauan aurreikusitako baimena, Aixearrek lursaila okupatzeari ekin diezaion, bi urterako; bidenabar, Azazetako Administrazio Batzarrarekin adostutako kontratua atxiki da, lurzatiaren jabea den aldetik, Aixear, SA enpresari baimena ematen diona dorrea instalatzeko lursailak okupatzeko.

Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari eskaeraren berri eman zaie, kasuan kasuko informazio ondorioetarako.

2020ko uztailaren 14an Natura Ondarearen Zerbitzuak aldeko txostena eman zuen eta bertan azaldu zuenez, proiektua Natura 2000 Sareko espazio babestuetan kokatuta ez badago ere, babestutako hiru espazio naturalen arteko igarobide ekologiko garrantzitsu batean dago kokatuta.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Ekainaren 1eko 109/2020 Foru Aginduaren bidez xedatu zen espedienteari hasierako onepena ematea eta jendaurrean ipintzeko 20 eguneko epea hastea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 2020ko ekainaren 10ean egin zen, 65. zenbakian. Horretarako emandako epearen barruan ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Bigarrena. Aztertutako kasuaren interes publikoak oinarritzat hartzen du energia berriztagarriei eta trantsizio energetikoari dagokien arloko esparru arautzaile aplikagarri zabalean ezarritakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, lehenik eta behin, otsailaren 21eko 4/2019 Legea aipatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. Lege horretan, zioen azalpenetik bertatik, energiaren erabilera eta hornidura pertsonen bizitzan funtsezkoa dela azaldu da, eta energia berriztagarriak erabili eta horiekin emisioak murriztea nabarmetzen du. Azalpen horretan arlo horretako aurrekaririk garrantzitsuenak laburbiltzen ditu, tartean Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaz azpimarratzen du; XXI Tituluak politika energetikoa hartzen du hizpide, eta oinarritzko zenbait helburu biltzen ditu, tartean efizientzia energetikoa sustatzea eta energia berri eta berriztagarriak garatzea nabarmenduz. Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030 ere aipatzen du; estrategia horrek helburuen artean ezarri zuen energia alternatiboak aprobetxatzea eta berriztagarrien kuota nabarmen igotzea gertuko 2030. urtera begira.

Horren haritik, lege horren helburuen artean nabarmendu behar dira energia kontsumoa murriztea eta jasangarritasun energetikoa sustatu eta bultzatzea, bereziki zaindus ingurumena babestea, energia berriztagarrien instalazioak finkatuz, politika energetikoaren orientazio orokorrekin bat etorriz, 1. artikuluan ezarri bezala.

4/2019 Legearen 4. artikulua iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren definizioa jaso zuen, eta iturri ez fosiletatik eskuratutako energia gisa definituz, eta berariaz aipatu zituen energia eolikoa, hidraulikoa, eguzki energia, eta beste batzuk. Lege bereko bosgarren artikulua lege horren helburuak ezarri zituen, eta b) atalean honako hau ezarri zuen: "energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko".

Bestalde, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretu bidez behin betiko onartu ziren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) ezarri zuten lurralde ereduaren oinarrien artean, lehenengo eta behin, lurralde jasangarria izan behar dela, eta energia berriztagarriak berariaz aipatu ziren gure lurraldea eraikitzean gero eta neurri handiagoan txertatu beharreko beste teknologia batzuen artean.

Memorian, baliabideen kudeaketa iraunkorrari buruzko zortzigarren atalean, energia hartu zuen hizpide eta, besteak beste, honako hau ezarri zuen: "efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak dira Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030 (3E2030) ekimenaren bi ardatz nagusiak eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde iraunkortasunerako, lehiakortasunerako eta klima aldaketaren aurkako borrokan. Eraginkortasun eta efizientzia energetikoa nabarmen areagotzea, energia iturri berriztagarriak erabiltzea orokortuz deskarbonizazioa lortzea eta energia autosufizientziarantz aurrera egitea ere badira lurraldeko estrategiaren energia arloko erronkak".

Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030 ekimenaren ikuspegiak honako helburu hauek lortzerantz egiten du aurrera: energia erabileretarako petrolio kontsumorik ez 2050ean, horretarako garraio sisteman egitura aldaketa bat behar da; Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia 2050 ekimenaren helburuetan laguntzea, hau da, Euskadiko berotegi efektuko gasen emisioak gutxienez ehuneko 40 murriztea 2030ean eta ehuneko 80 gutxienez 2050ean, 2005eko datuekin alderatuta, baita 2050ean azken kontsumoari dagokionez energia berriztagarrien kontsumoa ehuneko 40koa izatea ere; eta erregai fosiletatik erabat urruntzea eta BEGen emisio garbiak zero izatea mende honetan zehar, energia berriztagarriak energia hornidura bakarra izanik.

Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030 ekimenak honako helburu hauek lortzea ezarri du 2030ean bukatuko den denbora epean: (...)

2. Energia berriztagarrien erabilera ehuneko 126 indartzea, energia berriztagarriek % 21eko kuota izateko azken kontsumoan. (...)

5. Elektrizitatea sortzeko kogenerazioaren eta energia berriztagarrien proportzioa igotzea (batera hartuta ehuneko 20tik ehuneko 40ra 2015etik 2030era bitartean)(...)

7. Klima aldaketa arintzen laguntzea, eta, horretarako, energia politikako neurrien bidez CO2 emisioak 3 milioi tonatan murriztea.

Efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak, horrenbestez, Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030 (3E2030) ekimenaren bi ardatz nagusiak dira eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde iraunkortasunerako, lehiakortasunerako eta klima aldaketaren aurkako borrokan.

(...) Hala, epe ertainean badirudi energia berriztagarri ez kutsagarrien erabilera gero eta garrantzi handiagoa izango duen aukera bihurtuko dela Euskal Autonomia Erkidegoko energia horniduraren egituran.

Hala ere, energia berriztagarrien ekarpena handitzeak nahitaez ekarriko du energia ekoizteko instalazioak ezarri behar izatea, hain zuzen ere, baliabidea dagoen tokietan eta energetikoki bideragarri eta errentagarri izan daitekeen lekuetan. Eskala jakin batzuetan eta baliabide natural zehatzei dagokienez, aipatutakoa bereziki ingurune naturalean kokatutako landa lurzoruetan gertatuko da, eta askotan ingurumen aldetik balio garrantzitsuak izango dituzte... Azpiegitura horiek zuzen antolatzea eta hedapenerako estimuluak bideratzea erabakigarria izango da garapen jasangarriaren eredian euskarri energetiko bihur daitezen. (...)"

Aurrekoaren ildotik, aipatu behar da 2019ko uztailearen 30ean Eusko Jaurlaritzak klima larrialdiari buruzko adierazpen instituzionala eman zuela, eta adierazpen horretan berretsi zuen Klima Aldaketarako Klima Estrategia 2050 eta Estrategia Energetikoa 2030 ekimenekiko duen konpromisoa. Ildo beretik, Arabako Batzar Nagusiek 32/2019 Mozioa onartu zuten, urriaren 9koa; horren bitartez, klima larrialdiko egoera deklaratu zen, eta Arabako Lurralde Historikoko 2018-2030 Garapen Iraunkorrerako Plan Estrategikoaren aurreikuspenak egitea eskatu zen, aipatutako Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legearen garapenera moldatuz. Horrez gain, Batzar Nagusiek otsailaren 7ko 11/2020 Mozioa eman zuten, energia aurrezteko proiektuak bultzatzera eta iturri berriztagarriak erabiltzea babestera zuzendutako laguntzei buruzkoa.

Euskadiren eremuari dagokionez azaldutakoa erabat bat dator Europar Batasunaren esparruan hartutako arau aurreikuspenekin. Hala ageri da Eurostatek (Europako Estatistika Bulegoa) argitaratutako "Energia berriztagarrien estatistikak (Renewable energy statistics)" txostenean, 2020ko urtarrilean eguneratutako datuekin: "hemendik 2050era klimari dagokionez munduko lehenengo kontinente neutroa izatea da Europako Itun Berdearen helburua. (...) Energia berriztagarria erabiltzeak etekin potentzial ugari ekarriko ditu, berotegi efektuko gasen emisioak murriztuz, energia hornidura dibertsifikatuz eta erregai fosilekiko merkatuen dependentzia txikituz (zehazki, petrolio eta gasa). Energia berriztagarrien iturriak hazteak enplegua ere estimulatu dezake EBn, teknologia berri "berdeetan" lanpostuak sortuz."

Eurostaten txostenak datu ugari baliatzen ditu argudioak indartzeko, eta honako ondorio hau ateratzen du: "Energia berriztagarrien iturriekin 2008 eta 2018 artean ekoiztutako elektrizitatearen igoerak neurri handi batean erakusten du energia berriztagarrien hiru iturri EB osoan zabaldu direla, batez ere turbina eolikoak, baina baita eguzki energia eta bioerregai solidoak ere... 2018an eguzki energia izan zen elektrizitate berriztagarria sortzeko iturririk garrantzitsuena EBn."

(...) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/28/EE Zuzentarauak, iturri berriztagarrietatik ateratako energia erabiltzea sustatzeari buruzkoak, EB osorako helburu nagusi gisa jarri zuen 2020an iturri berriztagarrietatik iritsitako energia kontsumoa %20ko parekoa izatea. Zuzentarauak lege esparrua aldatu zuen elektrizitate berriztagarria sustatzeko (...)

2018ko abenduaren 11n EBk 2018/2001/EB Zuzentaraua eman zuen, iturri berriztagarrietatik lortutako energia erabiltzea sustatzeari buruzkoa. Esparru arautzaile berri horrek helburu lotesle bat ere ekarri zuen EBrentzat energia berriztagarrien arloan 2030. urterako, ehuneko 32ren parekoa, gorantz berrikusteko klausula batekin 2023. urterako (...)

2019ko abenduaren 11n Europako Batzordeak Europako Itun Berdea aurkeztu zuen [COM(2019) 640 amaiera], asmo handiagoko neurrien multzoa; horrek ahalbidetu beharko luke Europako herritar zein enpresek trantsizio ekologiko jasagarriaren abantailak lortu ahal izatea. (...) Itun Berdea Batzordearen estrategia honen parte da Agenda 2030 eta Nazio Batuen Garapen Jasagarriko Helburuak aplikatzeko (...)"

Estatu mailako araudiari dagokionez, aurkeztutako proiektuak dakarren instalazio mota dela medio, Energia Berriztagarrien Plan Orokorra 2011-2020 kontuan hartu behar da, Ministroen Kontseiluak 2011ko azaroaren 11ko Erabaki bidez onartutakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/28/EB Zuzentarauarekin bat etorritik helburuak ezarri zituen, iturri berriztagarrietatik eratorritako energia erabiltzea sustatzeari buruzkoa. Are gehiago, eta bukaera emate aldera, aipatu behar da 2020ko maiatzaren 19an, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak proposatuta, Ministroen Kontseiluak Klima aldaketa eta trantsizio energetikorako Lege Proiektua igorri zuela Gorteetara; une honetan izapidetze fasean dago. Besteak beste, arau horretan aurreikusitako helburuak honako hauek dira: Espainiak emisioen neutraltasuna lortzea beranduenez 2050. urtean, eta mende erdira iritsi baino lehen sistema elektriko espainiarra ehuneko 100 berriztagarria izatea; horren haritik, hurrengo hamarkada bukatzean, energiaren azken kontsumoaren ehuneko 35 gutxienez jatorri berriztagarri izan beharko da, sistema elektrikoaren kasuan, berriztagarrien presentzia gutxienez ehuneko 70ekoa izan beharko da.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aixear SAk sustatutako proiektuaren interes publikoa aitortzea, Azazeta-2 estazio meteorologikoa instalatzeko/desinstalatzeko, haize neurketak egiteko Azazeta udalerriri dagokion toki batean, Arraia-Maestu udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bigarrena. Ebazpen honen jakinarazpenarekin batera, Natura Ondarearen Zerbitzuak emandako txostenaren kopia igortzea.

Hirugarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea bukarazten du, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoan; nolana ere, aukeran, berraztertze errekurtsioa ere aurkeztu ahalko da egintza eman zuen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorritik; egokitzat jotako beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahalko da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 24a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO